

FORO ERREGULARRAREN BILERA

GASTEIZ – 2019ko urriaren 21a

Gai-zerrenda	<ol style="list-style-type: none"> 1. Foro Erregularraren barruan, herritarren ordezkartzan geratu den toki hutsa betetzea 2. Nola handitu herritarren gaitasun propositiboa 3. Nola hobetu OGP Euskadi ekimenaren komunikazioa 4. Zer aurrerapauso egin diren bost konpromisoetan, eta nola joratu IRMren (Berrikuspen Mekanismo Independentearen) txostenean jasotako gomendioak 5. Eskariak eta galderak
Iraupena	16:30 - 18:30

ERAKUNDEA	PERTSONA	BERTAN
Eusko Jaurlaritza	Luis Petrikorena - Gobernu Irekiaren zuzendaria	BAI
Eusko Jaurlaritza	Jon Olaizola – Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako komunikazio-arduraduna	BAI
Eusko Jaurlaritza	Javier Bikandi - Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria	BAI
Arabako Foru Aldundia	Lexuri Ugarte - Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria	BAI
Arabako Foru Aldundia	Arrate Arias López de la Calle - Gardentasun eta Herritarren Partaidetzako teknikaria	BAI
Bizkaiko Foru Aldundia	Josu Bilbao – Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako zuzendaria	BAI
Bizkaiko Foru Aldundia	Raúl Gutiérrez – Bizkaiko Foru Aldundiko aholkularia	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Joseba Muxika - Herritarren Partaidetzako zuzendaria	BAI
Bilboko Udala	Oihane Agirregoitia - Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako zinegotzi ordezkaria	BAI
Bilboko Udala	Amagoia Ibarrondo - Kalitate eta Ebaluazio Kabineteko zuzendaria	BAI
Donostiako Udala	Ibon Ramos – Udalaren Komunikazio Unitateko burua	BAI
Gasteizko Udala	Borja Rodríguez – Herritarren Partaidetzako eta Gardentasuneko zinegotzi ordezkaria	BAI
Gasteizko Udala	Jose Luis Pérez - Herritarren Partaidetzako, Gardentasuneko eta Gizarte Etxeetako zuzendaria	BAI
Eudel	Roberto Cañon - Eudeleko antolaketako burua	EZ
Innobasque	Gotzon Bernaola. - Berrikuntza Publikoko zuzendaria	EZ
Ibatuz	Antxon Gallego	BAI
Mestiza elkarte	Ana Molina	BAI
Osoigo	Eneko Agirre	EZ
Bilboko Emakumeen Kontseilua	Arantza Otaolea	BAI
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	Maialen Olabe - Burua	BAI
Sareen Sarea	Mikel Barturen - Koordinatzailea	BAI
Gasteizko kontzejuak	Miren Fernández de Landa	EZ

1. FORO ERREGULARRAREN BARRUAN, HERRITARREN ORDEZKARITZAN GERATU DEN TOKI HUTSA BETETZEA

Miren Fernández de Landa andreak gizarte zibileko kide gisa parte hartzen zuen Foro Erregularrean, baina Gasteizko Udaleko zinegotzi izendatu dute. Hortaz, beste pertsona bat izendatu behar da, hura ordezkatzeko. Zentzu horretan, OGP Euskadi Planaren idazkaritza teknikoak adierazi du IRM txosteneko gomendioak (gaitasun teknikodun erakundeak sartzeko premia) eta foro irekian jasotako proposamenak kontuan hartzeko aukera ona izan daitekeela honako hau.

Labur-labur, **IRM txostenak parte-hartzearen kalitateari buruz jasotzen dituen iruzkin hauek** nabarmentzen dira:

- Ondo baloratutako prozesu sortzailea izan arren, konpromisoak hautagaitzara begira egon dira, eta, neurri batean, Planaren epeak eta izaera instituzionala gizarte zibilaren gaitasun propositiboa baldintzatzen egon litezke.
- Foro Erregularrean parekidetasuna errespetatu bada ere, proposamenak egiteko gaitasuna areagotuko duen parekidetasun eraginkorragorantz egin behar da aurrera. Horretarako, honako hau proposatzen da:
 - Foro Erregularrean gaitasun tekniko handiagoa duten aktoreek parte har dezatela sustatzea
 - Foro Erregularrean parte hartzen duten gizarte zibileko agenteen koordinazioa sustatzea (lantoki propioa)
- Txostenean, halaber, adituen ikuspegiak gizarte zibilaren ikuspegia ordezkatu behar ez duela jasotzen da. Foro irekian jorratu zen gai hori, eta alegaziorako arrazoia ere izan zen, enpresa-ekimen pribatuak Plana eraikitzen lagundu dezakeela balioetsi baita. Bada, enpresa-ekimen pribatuak, zerbitzu-hornitzailea izanda ez ezik, gobernu ireki baten oinarritzko zutabeak osatzen dituzten edukiak (integritatea, herritarren partaidetza, kontu-ematea, open data, herritartasun aktiborako trebetasunak...) emanez ere lagundu dezake.

Uztailean, foro irekia egin zen, eta parte-hartzea nahiz Planaren komunikazioa hobetzeko proposamenak jorratzea izan zen xedea, IRM txostenean hobekuntza-puntu horiek hauteman baitziren. Hala, horri dagokionez, foroan proposatutako erakunde eta irizpide batzuk aipatu dira: lurralde-irismena, jarduteko eremuak (adibidez, antolakunde sektorialak edo kolektiboak biltzen dituztenak), antolakunde gidariak, gobernu irekiaren kultura sustatzen duten erakundeak (hezkuntza-eremuan, bereziki)...

Aurkezpen hori egin ostean, ekarpen hauek jaso dira:

- Foro Erregularrean ordezkariak duten gizarte zibileko antolakundeek kopurua handitzea proposatu da, pluraltasun handiagoa egon dadin.
- Izendapen berriak lantzeko batzorde bat sortzea proposatu da:
 - Batzorde horrek Planaren idazkaritza teknikoaren laguntza izango du, eta Foro Erregularrera kide berriak sartzeko proposamenak egingo ditu, OGP printzipioei jarraikiz.
 - Batzordeak kontuan hartuko ditu foro irekian egiten diren proposamenak, Foro Erregularrean gizarte zibileko erakundeek presentzia berrantolatzeari dagokionez. Halaber, interesgarriak izan litezkeen erakunde batzuk aipatu dira: hezkuntza-

eremua (adibidez, IGEak, unibertsitatea...), auzo-elkarteen koordinakundeak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteak, landa-ingurunea (AKE–Arabako Kontzejuen Elkartea) eta abar.

- o Batzordeak, era berean, proposamenak egitean aintzat hartuko ditu zeharkako alderdiak; hala nola, lurraldetasuna, generoa eta abar. Bestetik, foro irekiaren argudio-ildoari jarraituz, Foro Erregularrean adituaren ikuspegia osagarria ote den baloratuko du batzordeak, Euskadirako gobernu irekiaren esparru partekatua eratzeari buruzko alderdiak jorratzen baitira lehenengo planean. Zentzu horretan, Foro Erregularrean aditu gisa parte hartzen duen Antxon Gallego prest dago Foro Erregularrean duen ordezkari lagatzeko, batzordeak hala balioesten badu. Foro Erregularreko kideek aurreratu dutenaren arabera, lehenengo plana gobernu ireki baten oinarrizko zutabeen inguruan eraiki denez, ez da zertan ordezkatu.

Foro Erregularrak eraturako batzorde batek toki hutsa estaltzeko proposamena egingo du, bai eta gizarte zibilak Foro Erregularrean **erakunde parte-hartzaile gehiago edukitzekoa egingo ere**. Honako hauek osatuko dute batzordea: Mikel Barturen, Ana Molina, Maialen Olabe eta Arantza Otaolea. Ekimenaren burua: Goizalde Atxutegi.

2. NOLA HANDITU HERRITARREN GAITASUN PROPOSITIBOA

Idazkaritza teknikoak proposatu duenez, **Foro Erregularraren eginkizunean nahiz foro irekian** zentratuz hel dakiok hobekuntza honi.

Foro Erregularrari dagokionez, hobekuntza batzuk ezarri dira dagoeneko, IRM txostenaren oharrei jarraituta.

Foro Erregularra egin aurretik biltzea proposatu zitzaizen gizarte zibileko kideei, eta urriaren 8an egin zuten aurretiko lehenengo bilera hori, gai hauek jorratzeko:

- Gizarte zibileko kideak elkarren artean koordinatzeko gune edo foro birtuala sortu behar den ala ez.
- Foro Erregularreko toki hutsa ordezkatzeko prozesua nola egin.
- Parte-hartze adituak Foro Erregularrean duen balioa (horri buruzko txosten egiteko aukera dago, foro irekian proposatu zen moduan).

Gunea ondo baloratu da; beraz, Foro Erregularrak egiten dituen deialdien aurretiko bilera-guneari eustea erabaki da, foroan parte hartzen duen gizarte zibilak proposamenak elkarrekin eraikitzeko toki propioa izan dezan.

Foro Erregularra egin baino lehen gizarte zibileko pertsonekin eta erakundeekin **bilera bat egitea** erabaki da. Foro horrek Planaren idazkaritza teknikoaren euskarria edukiko du. Foro Erregularrean parte hartzen dutenek, bilerara joan ezin badira, idazkaritza teknikoaren bidez egin ahalko dituzte proposamenak (aurretik bilera eginez edo telefonoz hitz eginez).

Urriaren 8ko aurretiko bileran, bestelako hobekuntza-proposamenak jaso ziren:

- Bilerak egin aurretik **informazio argi eta erraza eduki behar da**, deskargua arintzeko eta Planaren segimendua hobetzeko (eta, horrela, Foro Erregularraren eginkizuna indartzeko).

Zentzu horretan, bilera honetarako, konpromisoaren deskargu-fitxa bidal zezatela eskatu zitzairen konpromisoen erakunde buruei, bilera baino lehen informazio xehea edukitze aldera.

- Foro Erregularraren bileretan jorratuko diren **gaiak taxutzea** proposatu da, bai eta **Planaren segimendua baterako diseinuarekin zerikusi handiagoa duten alderdiekin konbina dadila** iradoki ere, proposamenak egitea errazago izan dadin.
- **Foro ireki gehiago egitea** proposatu da, gizarte zibileko ordezkari gisa Foro Erregularrean parte hartzen duten kideek proposamen-lerro argiagoa eta ikuspegi komuna izan ditzaten. Funtzionatzen ari den tresna dela balioesten da: proposamen eraikitzaileak egiten dira, eta askotariko parte-hartze plurala dago.

Foro Erregularreko kideei **aurretik behar den informazioa** (zehatza, egokia, ulergarria...) **bidaltzea** erabaki da, bilera **modu eraikitzaile eta propositiboagoan** prestatu ahal izan dezaten, astebete lehenago.

Identifikatu diren hobekuntza-alderdiak edo Planaren erronkak (adibidez, komunikazioa, ebaluazioa eta abar) **lankidetzan handiagoz eta modu irekiagoan** lantzea erabaki da, baita foro irekiak indartzea ere, **batzordeen edo lantaldeen bidez**.

3. NOLA HOBETU OGP EUSKADI EKIMENAREN KOMUNIKAZIOA

Idazkaritza teknikoak komunikazioarekin eta kontu-ematearekin zerikusia daukaten zenbait alderdi aipatu ditu, zeinak IRM txostenean jasotzen diren eta foro irekian landu ziren:

- Dibulgazio biziagoa egin behar da, arduradun politikoen partaidetzarekin (komunikazio politikoa), herritarrentzat ulergarria eta irisgarria izateko moduan.
- Foro irekiak propositiboagoa eta garrantzitsuagoa izan behar du Planaren web-orrialdean (garrantzi eta presentzia handiagoa webean).

Planaren komunikazioa jorratze aldera, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak komunikazioa hobetzeko bitartekoak bideratzeko konpromisoa hartu dutela jakinarazi zaie Foro Erregularreko kideei. Konpromisoak gizarteratzeko ikus-entzunezko pieza bat egingo da. Proiektuak komunikatu ahal izateko fasean gaude, eta sareetan dibulgatu ahal izateko komunikazio-produktuak behar ditugu, eta konpromiso-taldeetan oinarritu. Halaber, interesgarri ikusi da foro ireki bat egitea (edo lurraldeko bana), komunikatzeko xedez (dibulgazio-saioa). Informazioa komunikabideei ere helarazi ahalko zaie. Planaren inguruko komunikazioa ulergarria izatea nahi bada Foro Erregularrak herritarrek kontrastea egiteko balio behar duela azpimarratu da. Zentzu horretan, hizkuntza errazten adituak diren erakundeekin (adibidez, Euskadiko Irakurketa Errazeko Elkartearekin) lankidetzan aritzeko aukera aipatu da.

Ekarpen hauek egin dira:

- Komunikaziorako materiala (infografiak, bideoak, liburuxkak...) edukitzeak sareko komunikaziori bide eman diezairoke, eta, sareko komunikazio horretan, Planaren parte hartzen duten erakunde pribatu nahiz publikoek dibulgazio-saioak egin ahalko dituzte, edo komunikazioan lagundu, udal- zein eskualde-mailan, lurraldean inpaktu handiagoa edukitze aldera.
- Erakundeen «foro propioak» aprobetxatu behar dira Plana dibulgateko. Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia aipatu da berariaz; izan ere, bertan parte hartzen duten

erakundeak oso garrantzitsuak direnez, sareko komunikazioan lagundu dezake. Foro horretan Plana aurkeztea litzateke kontua.

- Halaber, eta herritarrengana zuzenean iristeko xedez, kultura-, kirol- edo administrazio-zerbitzuen ekipamenduak erabiltzea proposatu da, Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzaren parte izateak Euskadiri zer dakarkion hedatzen joateko. Bestetik, kartelak edo bestelako euskarriak erabil daitezke 2018-2020ko Ekintza Planaren konpromisoak bete ahala eskuratzen diren produktuen berri emateko.
- Era beran, OGP Plana garrantzitsua izateko arrazoietan ere sakondu behar da, eta ez konpromiso bakoitzaren emaitzetan bakarrik. Proiektu horren alde zergatik egin den eta zein balioen gainean eraikitzen ari garen uler dadila. Komunikazio-pieza horiek, aldi berean, hurrengo planean parte hartzeko deia egiteko balio dezakete. Plan berriaren deialdia egin dezatela, eta nahas-mahas honetan zergatik sartu garen eta zein balioen gainean eraikitzen ari garen uler dadila.
- Beste erakunderen bat batzea proposatu da, Planerako baliabide gehiago egon dadin. Zentzu horretan, maila instituzional batzuetan zeharkako ekintzetara bitartekoak bideratzeko zailtasunak daudela aipatu da. Askotariko erakunde sustatzaileen talde juridiko bat alderdi hori jorratzen ari da (Planaren bitarteko komunak bideratzeko funts komuna egotea); bereziki, bigarren planari begira.
- Planaren komunikazioa jorratzeko lantalde edo batzorde bat eratzea proposatu da, eta Foro Erregularreko kideek osa dezatela.

Planaren komunikazioa jorratuko duen lantalde edo batzorde bat eratzea erabaki da. Honako hauek hartuko dute parte: Joseba Muxika, Luis Petrikorena, Ana Molina, Maialen Olabe, Mikel Barturen eta Oihane Agirregoitia. Ekimenaren burua: Luis Petrikorena.

4. ZER AURRERAPAUZO EGIN DIREN BOST KONPROMISOETAN, ETA NOLA JORRATU IRM TXOSTENEAN JASOTAKO GOMENDIOAK

Konpromiso bakoitzarekin bidali diren fitxen eduki garrantzitsuenak azaldu dira, labur:

K5 – INTEGRITATEAREN EUSKAL SISTEMA

Euskal sistema eratu dezaketen elementuak aztertu eta horien diagnostikoa egiteko fasea amaitu ondoren, eredu partekatu eta adostu bat eraikitzea izan da erronka nagusia. Eredu pilotuak dagoeneko abiatu dira (Ermuan eta Donostian). Epeak betetzen ari dira, baita aurreikusitako jomugak eta xedeak ere.

K4 – OPEN ESKOLA

Aurreikusita zegoen bezala ari da ezartzen. Mapaketa eta gida dagoeneko egin dira, eta eredu pilotuak (Añanako kuadrilla, Tolosa eta Bilbo) aktibatzen ari dira. Bestetik, kontraste-proiektua abiatu da, Gasteizen. Honako hau da erronka: eredua lurraldeari eta udalerriri bakoitzaren errealitateari egokitzea eta K3 konpromisoarekin koordinatzea.

K3 – ILAB

Kontzeptualizazioak hiru entregagarri ditu: jardunbide egokien azterketa, ilab-aren definizioa (balioak, funtzioak, balizko zerbitzuak, etab.) eta gobernantza-eredua. Jardunbide egokien azterketak eta ilab-aren definizioak (1. mugarrria eta 2. mugarrria) atzerapen txiki bat ekarri dute kronogramarekiko, baina eredu sendo bat adosteko eta konpromiso-taldean eztabaidarako

elementuak alderatzeko balio izan du. 3. mugarrria, gobernantza-ereduarena, une honetan eztabaidatzen ari da konpromiso-taldean, eta kontsulta-prozesu bat ireki da, hurrengo lan-saioetan landu beharko diren adostasun- eta desadostasun-elementuak identifikatzeko. Ilab-aren kontzeptualizazioa ez da amaituta egongo hiru elementu horiek definitu arte, eta elementu horiek pilotuen garapenarekin batera landu beharko dira. Modu ireki eta elkarlanekoan ari dira lanean, eta konpromiso-taldearen diseinuak eta prozesu irekiek pisu handia daukate. Hauek dira erronka handienak: komunikazioa (mezuen konplexutasuna), transferentzia-elementuen instituzionalizazioa eta ilab bera (praktika berritzaile gisa). Aurrekontu parte-hartzaileei buruzko eredu pilotua (Gipuzkoako Foru Aldundia buru) eta salutogenesiari buruzkoa (Eusko Jauralaritzaren Osasun Saila buru) abiatu dituzte.

K2 – OPEN DATA

Herritarren eskaria zehazteko fasean, konpromiso-taldeak funtsezko eginkizuna izan du. Bestetik, herritarrei galdetegien bidez egin zaien kontsultak erantzun zabala izan du. Exekuzio teknikoko fasean, ordea, talde instituzionala arduratzen da datuak irekitzea bermatzeaz, zerbitzuak eratzeko oinarria izaki hori. Kronograma pixka bat atzeratzen ari da, eta herritarrek eskatutako zerbitzu hautatu batzuei buruzko datuak irekitzeari emango zaio lehentasuna. Bigarren fasearen kontratazioan, komunikazio-plan bat eskatu dute (konpromisoa ez da azaltzeko erraza), eta foro ireki bat egingo dute urte amaieran, zerbitzuen funtzionalitatea lantzeko.

K1 – KONTUAK EMATEA

Agintaldiko planei buruzko informazioaren oinarritzko egitura adostu dute, baina plangintzan aurreikusitakoa baino denbora gehiago behar izan dute horretarako. Udal ertain eta txikietara iritsi nahi dute (20 udaletara), informazio-egitura baliozkotu eta agintaldiko planak argitaratzea sustatzeko. Hurrengo urratsetan, jarraipena egiteko balioko duen eta,aldi berean, herritarrek ikuskaritza egiteko elementu bat edukiko duen zein aplikazio eduki beharko genukeen jorratu beharko da (BiscayTIKekin lankidetzan). Aurreikuspenen arabera, aplikazioaren *briefing* funtzional bat edukiko dugu datorren urtearen hasierarako.

Aurkezpena amaitu ondoren, honako galdera / iruzkin hauek egin dira:

- Datuak ez irekitzeko arriskuaren kudeaketa: Zer gerta daiteke datuak irekitzeko astirik ematen ez badu? Badago betebeharrak edo konpromiso politikoa argirik?

Borondatea eta konpromisoa daude. Erakunde bakoitzeko talde teknikoak horretan ari da lanean, baina prozesu nekeza da denboran, barne-kudeaketan eta aurrekontuan. Datu horiek irekitzeari eman zaio lehentasuna, baina, nolana ere, bost datu-multzo irekitzeko ari dira lanean, datu horiekin bi zerbitzu diseinatzeako konpromisoan finkatu den xedea betetzeko.

- Non izango ditugu eskuragarri K1 eta K2 konpromisoen ondoriozko aplikazioak eta zerbitzuak? Garrantzitsua da herritarrengan eta irisgarritasunean pentsatzea.

Aurreikusita dago OGP Euskadiren webgunean eta erakunde bakoitzaren webguneetan eskuragarri egotea; hala ere, Eusko Jauralaritzak sortutako bi aplikazio direnez, bere plataforma informatikoan gordeko dira, eta agintaldiko planen kasuan, berriz erabili edo egokitu ahal izango dira, erabiliko duten udalen edozein plataforma informatikotan, aplikaziorik ez dutelako edo beren aplikazioa ordeztu edo eraldatu nahi dutelako konpromisoarekin bat egiten dutenean. Azken helburua OGP Planean landutako edukien eta balioen translazioa egitea izan behar da,

erakunde bakoitzaren berezko ereduak errespetatuz. Halaber, plataforma propioak nola lotu daitezkeen landu beharko da, herritarren sarbidea hobetzeko.

- Udal txikienek OGPn parte hartzea: abiapuntua, egituraren gaitasuna eta abar.

K1 konpromisoan, EUDELekin ari dira lanean, prozesuren bat abiatuta duten edo parte hartzeko gogoia duten udalak identifikatzeko. Era berean, K3 konpromisoak hauteman duenez, seguru asko bitartekorik ez dagoelako da baliagarria parte-hartzearen inguruko berrikuntza. Bestetik, aurrekontuen eredu pilotuaren emaitzak udal txiki eta ertainei helaraziko zaizkie (Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik).

5. BESTE BATZUK

- Dokumentazioa astebete lehenago jasotzea eskatu dute, nork bere erakundeetan landu eta kontrastatu ahal izan dezan, Foro Erregularra egin aurretik.
- Foro Erregularrean Planaren kontu-emate eta jarraipen gisa aurkeztu diren fitxak argitaratzea erabaki da. Horretarako, fitxak berrikusi beharko dira (jomugak osatu, etorkizunera begirako erronkak zehaztu...); formatuak bateratu, eta itzulpena egin.